

XXI. Mendeko Akordioa:
Bai Euskarari

Hurrengo urratsak ere zehazturik

Bi hilabetetan kide gehiago bilatuko dituztela dio 'Bai Euskarari' akordioa garatzeko prozedurak

Akordioaren ondotik etorriko den Plan Estrategikoa lantzeari ekingo dio hurrengo hilabeteetan Kontseiluak, eta, horretarako, aholkulari espezializatuen laguntza baliatuko du. Plan Estrategikoa lurralde bakoitzeko errealitate soziolinguistikora egokitzeko, lan taldeak lurraldeka egituratuko dira.

Alberto Barandiaran/Iruñea

AKORDIOA garatzeko prozedura da atzo sinatutakoaren atal garrantzitsuenetako bat. Hau da, akordioaren inguruan arlo guztietako sinadurak bildu ondoren, zein izango diren hurrengo pausuak, zertarako bildu diren indarrak, finean. Lau arlo ditu prozedura horrek: akordioaren hedapenari buruzkoa, plan estrategikoaren prestaketa, finantzaketa eta akordioaren jarraipena.

Sinatzaileek akordioa onesteko gonbita egiten diete Euskal Herri osoko gizarte eragile garrantzitsueni, gutxienez herrialde mailako dimentsioa duten guztiei. Kontseiluak gizarte eragileen zerrenda proposamena aurkeztuko du, eta sinatzaile guztien artean hitzartuko da. Gonbita onartzeko bi-bat hilabete epea eman ondoren, *Bai Euskarari Akordioa* onesten duten gizarte eragileekin bigarren sinaketa egingo da.

Planaren prestaketan sinatzaile guztiek hartuko dute parte, eta hori gizarte-eragile guztien arteko kongresu handi batekin amaituko da. Ondoren konpromisoaren gauzatzeari ekingo zaio.

Lanordu bat euskararen alde ● Finantzaketa ere hitzartu zen atzoko ekitaldian. Akordioaren prozesua eta Plan Estrategikoaren prestaketa *Lanordu bat eus-*



kararen akordioaren alde izeneko ekintzaren bitartez finantzatuko da. Ekintza horretarako, erakunde enpresarialen eta sindikatuen babesa lortzen saiatuko da Kontseilua.

Akordioaren jarraipena da azken puntua. Horretarako gizarte eragile bakoitzak ordezkarri bat izendatuko du; guztien artean jarraipen batzordea hautatuko da eta horrek izango du prozesua zehazteko ardura.

Kontseiluak izango du, era berean, akordioaren garapenean eta planaren diseinuan prozesu honen dinamizazio eta koordinazio ardura. *Bai Euskarari Akordioa* garatzeko eranskin honetan azaldu den prozedura sinatzaileen arteko adostasunez alda daitেকেela zehazten du itunak.



Goiko argazkian, Iñaki Uribe, Xabier Mendiguren eta Felix Marti, Planetariumera sartzen. Eskuinean, sinatzailetako batzokuren aulkietan. OSKAR MONTERO

Iraganetik etorkizunera, lekukotasunen eskutik

■ Euskararen inguruko bizipenen berri eman zuten atzoko ekitaldian Euskal Herri osoko hainbat euskaltzale edadetuk eta gaztek

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

AKORDIOA sinatzeko ekitaldian parte hartu zutenek euskararen iraganetik etorkizunera bidaia atsegina egin ahal izan zuten, hainbat lekukotasunen eskutik. Agertokian, euskararen inguruko beren bizipenen berri eman zuten eskarmentu handiko hainbat euskaltzalek, bai eta zenbait euskaltzale gaztetxok ere.

Sabin Salaberri:

Aramaioko (Araba) semeak lan handia egin du musikatik abiatuta euskararen alde. Atzoko

ekitaldian, aspaldiko garai ilunak ekarri zituen gogora:

«Nire haurtzaroan, etxean, euskara besterik ez zen mintzatzen, amak ez baitzuen inoiz erdaraz ongi ikasi. Sei urtekin eskolara joan nintzenean, gaztelaraz hitz egitera behartu ninduten, euskaraz egitea zeharo debekaturik baitzegoen. Kanean ere, une hartan, erdarazko giroa zen nagusi (...).»

Mariano Izeta:

Bere betiko txapela erantzeko, 87 urteko baztandar ezagunak nahiago izan zuen gaur egungo egoeraz mintzatzea:

«Atsegin handia da neretako zuengana etortzea. Ohore handia da, eta aunitz poztutzen naiz. Bai euskarari eta bai gure indar guztiekin. Badirudi euskara pizten ari dela Nafarroan, eta hala behar ere. Euskara nafar hizkuntza dugu, eta nafar guztiek behar dugu maitatu egiazko nafarrak baldin bagara. Urte hauetan Nafarroan nabari da pizkunde bat, ez bakarrik gure Baztan-Bidasoa aldean, baita Iruñean, Lizarran, Tafallan, Zangozan eta Erribera aldean ere. Euskaldunberri aunitz ditugu eskualde horietan, eta horrek indartzen du

nafar hizkuntza. Bai euskarari! Gainera euskaldunberri horiek euskaltzaleak dira, maite dute gure mintzaira, nafar hizkuntza. Ikusia dago euskara ikasteko behar dela euskaltzalea izan, ez baduzu maite gure mintzaira ez duzu ikasiko. Iraun dezala zaletasun hori bizi guzian. Gazteriari dei bat: zuen baitan dago euskararen etorkizuna, bide horretatik jarraitu etsi gabe».

Janamari Malharin:

Donibane Loitzuneko irakasleak etorkizuneko euskaltzalei igorri zien mezuà:

«Zuen iduriko, gazteak, egun

denbora idorrek dira. Baina beha aintzinakoei. Herra gabeko borroka ez du nehor hil arazten! Eman izena akordioari!».

Nerea Elorriaga:

Iurretako alabak 17 urte ditu eta ikaslea da; eta, Malharinek bezala, ez zen batere kontent egun euskarak bizi duen egoerarekin:

«Nire ama hizkuntza euskara da, eta ez dot umezurtz geratu nahi. Zoritxarrez, euskarari hostoak jausten ari jakoz, eta ez daukagu udaberria itxaroten egoteko astirik. Geure etorkizuna atzotik jorratuta egon beharko litzake». X